



## Gaitzez libre beste urtebetez

Euskal inauteriak ospatu dituzte herritarrek eta ituna bete ez duen Kaxkamalo xomorroa sutan erre / 8-9

TXINTXARRI

## Saio borobil eta larroxa

Hiruki Larroxako kide Ibai Fresnedok gidatuko du Borobilean elkarteak hil honetarako deitu duen hitzaldi-tailerra / 4

**Buruntzaldea IKTko igerilariek emaitza ederrak lortu dituzte maila ezberdinetako hainbat probatan / 10**



**Inauterien oihan koloretsuan abentura ederrak bizitzeko moduko egitaraua prestatu dute / 2**



**MuseumLab egitasmoan parte hartu du Oriarte BHIk, Jaime de los Rios artistarekin batera / 5**



**Santa Ageda bezpera ezta ezta sano eta gogotsu ospatu dute herriko zenbait eragilek / 6**



**Urduri baina ospakizun egun handia iristeko gogoz daude Ormazabal loradendakoak / 7**



**Lasarte-Oriako atletak maila ezberdinetako txapelketetako lehen postuetan izan dira / 11**





Udal ordezkariak, konpartsetako kideekin batera Okendo plazan, aurtengo inauterietako egitaraua aurkezten. Ospakizun egun nagusia biharkoa izango da, larunbata, hilak 10. TXINTXARRI

# Oihan bihurtuko da Lasarte-Oria

lazko "arrakastak" animatuta, Lasarte-Oriako Udalak egitarau oparoa prestatu du inauteriak ospatzeko, aurtengo parte hartuko duten sei konpartsekin eta beste zenbait eragilerekkin elkarlanean. Eguraldia ona ez bada programa moldatu egingo dute

## Txintxarri

Inork oihaneko triburen baten erritu edo dantzarik ezagutzen badu eguraldi ona erakartzeko, has dadila egiten, aurreikuspen meteorologikoa ez delako ona, biharkoa batez ere, hilak 10. Edonola ere, festa giroa ez da faltako datozen egunetan, eguraldi eguzkitsua ala euritsua izan, udalak egitarau oparoa antolatu duelako konpartsekin eta beste zenbait eragilerekin batera. "Jarduera gehienak berberak izango dira, iaz oso arrakastatsua izan zirelako", azaldu du udaleko Jaiak departamentuko zinegotzi Txus Alonsok. Aurrekontua 20.000 eurokoa izan da.

Ospakizun egun nagusia, ohi bezala, larunbata izango da, goizetik hasi eta iluntzera artekoa. Jalgune, Intzak Parranda, Biyak Bat, La Tribu, Sasoeta Sasoian eta Tigres y Leones

konpartsek parte hartuko dute aurtengo desfilean (17:15ean hasiko da, aurreko urteetan baino geroxeago) eta ibilbide luzeagoa (Okendo-Zumaburu kalea-Kale Nagusia-Hipodromo etorbidea) ala motzagoa (Okendo-Largoenea kaleko biribilgunea-Osasun zentroa-Elizate plaza) burutu beharko dute, egiten duen eguraldiaren arabera. Herritarrek aukera izango dute ekitaldi horretan parte hartzeko, antolatzaileek jarriko duten furgoneta ibiltariaren bidez.

Arratsaldeko jarduera nagusi horren aurretik egingo dute

**ERAGILEAK 2011TIK ARI DIRA INAUTERI TEMATIKOAK ANTOLATZEN; AURTENGOA, OIHANA**

banakako nahiz taldekako mozorroen lehiaketa. Epaimahaiko kideak Aterpea merkatarien elkarteko kideak izango dira eta banatuko dituzten sariak, eragile horretako bazkide diren komertzioetan erabiltzeko erosketa bonuak.

Iaz bezala, festa datorren astelehen arratsaldean amaituko da, sardina ehortzi eta erreta. Frenetik konpainiak antolatuko du eta ibilbidea berbera izango da: Okendotik atera, ahaten eta Askatasunaren parkeak igaro eta plazara itzuli.

Alonsok eskerrak eman dizkie egitaraua antolatzen eta ekimenak aurrera eramaten lagundu duten konpartsa eta eragile guztiei. TXINTXARRI aldizkariak, ohi bezala, ospakizunen jarraipen berezia egingo du kanal berezi honetan: <https://txintxarri.eus/bereziak/inauteriak-2024>.

## Inauterietako egitaraua

Udaleko Jaiak saileko zinegotzi Txus Alonsok herritar guztiak animatu ditu antolatutako jardueretan parte hartzera.

### Hilak 9, ostirala

- **15:30etik aurrera**, inauterietako festak ikastetxeetan.
- **17:30etik 19:15era**, 9 eta 12 urte arteko gaztetxoentzako mozorro festa, DJa eta askaria, Okendo plaza atzealdeko karpan.
- **19:30etik 21:00etara**, 12 eta 16 urte arteko nerabeentzako mozorro festa, DJa eta askaria, Okendo plaza atzealdeko karpan.

### Hilak 10, larunbata

- **12:00etan**, parte hartuko duten konpartsak elkartzea, Okendon.
- **12:30ean**, konpartsen aurkezpena Okendon. Oaintxe in deul txarangak girotuko du ekitaldia.
- **13:45ean**, konpartsen lehiaketa herrikoia irabazleak iragarriko dituzte, banakako nahiz taldekako mozorro onenak zeintzuk diren iragarrita. Aterpea elkarteko kideak izango dira epaile. Sariak eragile horretako bazkide diren dendetan erabiltzeko erosketa bonuak izango dira.
- **14:30ean**, konpartsen bazkari herrikoia, Okendon.
- **16:00etan**, super bingoa Okendo atzealdeko karpan.
- **17:15ean**, konpartsen desfilea hasiko da. Eguraldiaren arabera, ibilbidea luzeagoa ala motzagoa izango da. Furgoneta musikatua bat izango dute kuadrillek, desfilatzen dutenen atzetik joateko.
- **20:00etan**, kaleak girotuko ditu Oaintxe in deul txarangak.
- **23:00etatik 02:00etara**, disko festa egingo dute karpan.

### Hilak 11, igandea

- **12:00etatik 13:30era**, LOZET elkartearen erraldoi eta buruhandiak herrian barrena ibiliko dira, Oaintxe in deul txarangarekin batera.
- **18:00etan**, DJ Nikoren emanaldia hasiko da, adineko herritarrei zuzendutakoa.

### Hilak 12, astelehena

- **11:00etatik 13:00etara**, puzgarriak jarriko dituzte Loidibarren pilotalekuan, 8 urte arteko haurrentzat.
- **18:30ean**, sardina ehortzi eta erreko dute. Bukatutakoan bi zezensuzko aterako dituzte Kale Nagusira.



# Ekitaldi politikoa egin dute sozialistek

Eusko Jaurlaritzarako hauteskondeek oraindik datarik ez badute ere, alderdiak ari dira beraien jardunaren eta proiektuen berri emateko agerraldiak egiten. Froilan Elespe Herriko Etxean aurrera eraman du horietako ekitaldi bat PSE-EEK

## Txintxarri

Elkarrekin sartu ziren hiru hizlariak jarraitzailez beteta zegoen hitzaldi aretora, eta haiekin batera, Gipuzkoako zerrendaburu izango den Denis Itxaso eta Gipuzkoako idazkari nagusi Jose Ignacio Asensio. Txaloen eta agurren ondoren, lehen ilarran eseri ziren denak, Valdivia alkatea izan ezik, bera izan baitzen hitza hartzen lehena.

Lasarte-Oriako sozialisten gonbitari azkar erantzun izana eskertu zion Andueza eta *Aldatu norabidea* leloaren gidari izango den programarako proposamenak emango dizkiola esanez ekin zion adierazpenari. Herriari begira jarri zen jarraian: Gipuzkoako dentsitate altuena duena da, industriagune gutxi du, eta N1ak eta inguruko udalerrien interesek mugatzen dute. Haiek Lasarte-Oriaren mugen ondora "jarduera ezerosoak" ekartzea ohikoa da, "onurak" beraiek jasoz eta "eragozpenak" lasarteoriarrek pairatuz. Eskusaitzetara iristeko bidei buruz Donostiako Eneko Goia alkateari galdetu zionean, honek "pentsatu ere" egin ez zuela erantzun ziola esan zuen Valdiviak. Bere taldeak, aldiz, Euskotren Oria eta Zubietara luzatzea proposatu zion Iñaki Arriola sozialista buru duen Garraio sai-



Eszer-eskuin: Itxaso, Corcuera, Andueza eta Valdivia. TXINTXARRI

lari eta ideia "aztertzen ari direla" gehitu zuen.

**Egindakoa, proposamenen hazi** Susana Corcuera legebiltzarkidearen txanda izan zen ondoren. Azken legegintzaldiko kudeaketa izan zuen hizpide. Zoriondu egin zuen Valdivia berriro alkate izateagatik eta aurrekontuak adosteagatik, hori baita "inor atzean utzi gabe, herritarren beharrei erantzunak gidatzeko oinarria". Sozialistak gobernuetan "gauzak aldatzeko" parte hartzen dutela azaldu zuen, kudeaketa "herrita-

rren bizi kalitatea hobetzeko eta ongizate gizartea sendotzeko" modu gisa ulertuta. Bide horretan, Idoia Mendia lehendakariordeak eta Javier Hurtado eta Iñaki Arriola sailburuek hobetutako Madrigo gobernuaren zenbait erabaki gogoratu zituen.

Azkenik, Andueza jarri zen mikro aurrean. Hauteskundeetan emaitza erabakigarria lortuko dutela uste du lehendakariak eta bizi diren lekuaz harro dauden herritarrak nahi ditu, "baina ez identitate arrazoiengatik, ongizateagatik baizik". Datozen



NEURE KABUZ  
GORKA LASA

## Urtean behin

Iritsi da aurten ere askorentzat urteko sasoirik zirraragarriena. Inauteriak, alegia. Batzuk aurtengoak amaitzerako hasiko dira hurrengo urtekoak prestatzen, denboraz, mimoz, eta pazientziatz, detaile txikiak eta esanguratsuenak kontutan hartuz. Beste batzuek, ordea, azken unea arte ez dute jakingo zertaz mozorrotuko diren, denbora faltaz, utzikieriaz edo besterik gabe axolagabekieriaz berdin zaielako indioz, pailazoz edo apaizez mozorrotzea, aurkitzen duten lehenengoarekin aski zaielako.

Nire etxeko ganbaran ari naiz araka, zer dagoen ikus-miran. Aspaldian pilaturik dauden eta urtean behin behintzat hautsa lekuz aldatzen zaien kaxa mordoxka bati begira. Honako honetan sartu ote nuen? Edo beste horretan ote zen? Inongo idatzirik edo ikurrik ez, eta horrela nekez aurkitu daiteke zerbaite.

Hankapean dudakaxatik hasi naiz, ixteko erabili ohi den zinta marroiaren punta azkazalarekin urratu eta berehala askatu da alderik alde. Hauts gainean ipinitako behatzen arrastoa nabarmen islatzen delarik, kaxa zabaldu eta kolore desberdin eta askotariko arropa mordoa atera dut, praka gorriak, alkandora berdea, peluka luze bat...

Ateratzearekin bat mozorroak janzten hasi naiz, pailazoarena, bikingoarena, iazkoa, orain bi urtekoa, auskalo noizkoa... a ze piura! Baina lotsarik ez! Irudimena era askean lantzeko modu aproposa. Izan ere, urtean behin norberaren buruaz edo besteenez barre egitea bezalakorik ez dago. Urtean zehar zer esana eman duen pertsonaia edo gertaera konkretu batzuei iseka, kritika edo barre egiteko balio duen festak dira.

Supermanena erantzi dut, Tejerorena janzteko... hau agian zahartuegia geratu da eta esploratzailearena probatu dut. Ordu-bete eman dut mozorroak probatzen, hau jantzi, hura erantzi; sartzeko komeriak izan ditudan praka estu-estuak, peluka laranja, betaurrekoak, hotz egiten badu barruko kamixeta eta beste hainbeste arropa. Azkenerako, izerditan eta nekatuta, erabaki dut aurten zertaz mozorrotuko naizen.

Ea bihar ikusi eta elkar ezagutzen dugun. Inauteri on!

asteetan aurkeztuko dituzten zerrendek parekorik ez dutela uste du. "Onenak gara". EAJren autokonplazentzia eta EH Bilduren independentismoaren aurrean, sozialisten alde egitera deitu ditu herritarrak.

Bestalde, Lasarte-Oriako PSE-EEK iragarri du hilaren 12an Rafaela Romero diputatua etorriko dela herriko etxera 18:00etan, Espainiako Kongresuan tramitatzen ari diren Amnistia Legeari buruz hitz egitera.

txintxarri

Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,  
doan eta euskaraz

**Zure iragarkia jarri nahi duzu?  
Jar zaitez gurekin harremanetan!**

**Deskontu bereziak herrikoentzat!**

ESKATU TARIFAK: [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus) • 646 82 44 66



Hiruki Larroxa kideak, ezker-eskuin: Egoitz A. Albeniz, Joseba Gabilondo Marques eta Ibai Fresnedo. HIRUKI LARROXA

## "Helburua da espazio bat irekitzea, herriko gizonak pentsatu dezaten beraien subjektu izaeraren inguruan"

**IBAI FRESNEDO** HIRUKI LARROXAKO KIDEA

Hiruki Larroxa gonbidatu du Borobilean elkarteak hil honetan aurrera eramango duen saiorako. Aipatu kooperatibako kide Ibai Fresnedok gidatuko du hitzaldi-tailerra

### Txintxarri

Borobilean Elkarteak datorren ostegunean, hilak 15, arratsaldean aurrera eramango du otsaileko saioa; Oriarte Landaberri institutuan elkartuko dira parte hartzaileak, 19:00etatik

aurrera. Hiruki Larroxa kideak gonbidatuko dituzte oraingoan, eta *Gizonak parekidetasunaren bidean: korapiloak eta aukerak* izenburupean, solasaldi-tailer saioa izango dela iragarri dute antolatzaileek. Gau-

zak horrela, eta informazio gehiegirik aurreratu gabe, aipatu kooperatibako kide Ibai Fresnedorekin hitz egin du TXINTXARRI-k; hitzorduaren nondik norako orokorrak eman dizkio aldizkariari.

## Itsasoa berreskuratzea eta zaintzea, "guztion ardura"

Hilaren 12tik 29ra egingo dute XVI. CIMASUB Itsaspeko Zinema Zikloa. 'Etorkizun urdin bat eraikitzen' lelopean

### Txintxarri

Hiru proiektuak, herriko ikasleekin egingo duten Txikizikloak eta argazki erakusketa batek osatuko dute itsaspeko zinemari buruzko aurtengo jardunaldia, Real Sociedad tal-

dearen urpekaritza sailak aurrera eramaten duena, erakundeen eta Danok Kide elkartearen laguntzarekin. *Etorkizun urdin bat eraikitzen* izango da leloa: "Horren bidez, gogorarazi nahi dugu denon ardura dela itsasoko ekosistema

zaindu eta, batez ere, berreskuratzea, gaur egungo egoera zein den kontuan izanda", nabarmendu du antolatzaileetako bat den David Sanchez Carreterok.

Hiru emanaldiak hilaren 12, 19 eta 26an aurrera eramango dituzte, kultur etxean, 19:00etatik aurrera. 23 film labur eta hiru dokumental erakutsiko dituzte horretan, Indonesiako itsasoa oinarri dutenak. Argazki erakusketa ere 12an irekiko dute, 29ra arte, ordutegi honekin: 17:00etatik 21:00etara.

### Zer topatuko dute saiora bertaratu diren herritarrek?

Hitzaldi-tailer formatuan egingo dugun saio bat izango da. Helburua da espazio bat irekitzea, Lasarte-Oriako gizonak pixka bat pentsatu dezaten beraien subjektu izaeraren inguruan. Gizon izatea gaur egun zalantzan jartzen ari da, ez bakarrik mugimendu feministatik, eta horrek nolabaiteko erreakzionarismoa ekarri du mutil gazteetatik hasi eta gizon helduetaraino.

Hortaz, gure helburua izango da batez ere gizon izatearen subjektutasun horretan azpimarratzea zein den gaur egungo testuingurua, zertan eragiten duen maskulinitatearen erakuntzak eta horren erreproduktzioak, batez ere gizonon pribilegio egoeretan, jarrera eta egiteetan.

*Gizonak parekidetasunaren bidean: korapiloak, erronkak eta aukerak* izenburua eman diogu ekimenari, eta hitzaldian joango gara, banan bana gaur egungo korapiloak plazaratuz zein erronka dauzkagun eta zein aukera ikusten. Azken urteotan, ia astero gabiltza gizonzkoekin lanean, eta galdera izarra hau izaten da: Zer ekarpen egin dezakegu feminismoan edo berdintasunaren aldeko borrokan? Hori bada erronketako bat. Hori nola egin dezakegun aztertuko dugu.

### Ez da solasaldi soil bat izango, baizik eta hitzaldi-tailer bat?

Ordu eta erdiko saioa izango denez, zintzoki aitortu behar dizut uste dudala ez dugula tailerra egiteko tarterik izango. Egiteko aukerarik izango bage-nu, ariketatxo bat planteatuko nieke, aztertzeko egunerokoan beraien pribilegio posizio horre-

## "BOTEREAREN ERREPRODUKZIOAREN INGURUAN PENTSATU ETA HAUSNARTUKO DUGU"

tarik nola erabiltzen duten maskulinitatea eta botere posizioa. Boterearen erreproduktzioaren inguruan pentsatu eta hausnartzeko, eta horretan arreta jartzeko.

Guk azken urteetan fokua jarri dugu egunerokoan erreproduktzioaren diren indarkeria sinbolikoetan; historikoki mikromatxismoak deitu izan zaie, baina guretzat indarkeria sinbolikoak dira. Horren bueltan hausnartzeko ariketa bat izango da tailerrean egin asmo duguna.

Feminismoak egin duen lana aitortzea beharrezkoa delako eta gizonok nolabaiteko ardura bat hartu behar dugulako horrekiko. Euskal gizarte gisa justizia soziala behar dugu, baina gizon gisa ez dakigu nondik egin gure ekarpena. Bakoitzak bere maskulinitatean arakatu behar du eta horren gainean hausnartu behar du, jakiteko nondik egin dezakeen bere ekarpena.

### Zergatik animatu lasarteoriatarrek ekimenean parte hartzea?

Azken urteotan feminismoak egin duen lana aitortzea beharrezkoa delako eta gizonok nolabaiteko ardura bat hartu behar dugulako horrekiko. Euskal gizarte gisa justizia soziala behar dugu, baina gizon gisa ez dakigu nondik egin gure ekarpena. Bakoitzak bere maskulinitatean arakatu behar du eta horren gainean hausnartu behar du, jakiteko nondik egin dezakeen bere ekarpena.



CIMASUB zikloaren antolatzaileak eta udal ordezkariak. ISAAC FARRE



# Sare sozialen eta Interneten dimentsioaz

MuseumLAB izeneko hezkuntza proiektua garatu du Oriarte BHI institutuko 4. mailako ikasle talde batek, Jaime de los Rios artista sortzailearekin batera. Laser gailuekin sortutako hiru dimentsiotako argi eskulturak egin dituzte

## Txintxarri

Jardunbide artistikoa eta hezkuntza uztartzen ditu Museum-LAB proiektuak. "Mugitzen ari den museo bat" izan nahi du, espazio hori esperimentaziorako eta ikaskuntzarako eremu partekatu gisa indartu eta aktibatuta. Ondarebiziya egitasmoaren barruko ekimena da eta lengoia eta jakintzen artean ikertzea bilatzen du, ondarearen eta artearen eremuan, belaunaldi berriak inplikaturik.

Jarduera horren lehen erakusketan herriko ikasle talde batek parte hartu du, zehazki, Oriarte BHI institutuko 4. mailako talde batek, curriculum aniztasunarekin. Interneten eta sare sozialen dimentsioak zeintzuk diren aztertu dute Jaime de los Rios artistarekin batera. "Lagunari bidali diozun WhatsApp mezuak zenbat denbora behar du bere sakelako telefonora iristeko eta zein ibilbide egiten du?" bezalako galderak egin dizkiete euren bu-

ruei eta hori irudikatu, laser gailuekin sortutako hiru dimentsiotako argi eskulturen bidez.

Cementos Rezolak Añorga auzoan duen museoan panel ugari jarri dituzte proiektuaren nondik norakoak zeintzuk diren erakusteko eta baita zenbait collage ere. Horrez gain, de los Riosek metakrilatozko bi pieza jarri ditu, Interneten eta sare sozialen arteko konexioa irudikatzen dutenak.

Hilaren 2an egin zuten aurkezpen ekitaldia eta Oriarte institutuko ikasleek nahiz de los Riosek azpimarratu zuten "plazera" izan dela eurentzat elkarlanean aritzea. Erakusketa, esan bezala, Museum Rezolan dago ikusgai eta datorren hilabetean Oriartera ekarriko dute. Erakusketa ez ezik, *Sepulka Komandoa* izena duen argitalpen bat ondu dute. Hau guztia irakur daiteke horretan: proiektua nondik datorren, artistaren balorazioa, lanaren faseen deskribapena eta Oriartekoen hitzak.



Oriarteko kideak eta Jaime de los Rios artista, aurkezpen ekitaldian. ORIARTE BHI

**m**  
Mondragon  
Unibertsitatea

**Gure ikasleen ahotan**

## "Irakasleekin dugun hurbiltasuna da Mondragon Unibertsitatetik gehien gustatzen zaidana"

**ANDER HAZAS BERASATEGI**

**Herria:** Lasarte-Oria

**Adina:** 20 urte

**Ikasketak:** Oriarte BHI Institutuan.

**Gradua:** Energiaren Ingeniaritza.

**Zaletasunak:** kirola eta musika.



**-Energiaren Ingeniaritza graduko 3. mailan zaude: zergatik aukeratu zenuen gradu hau?**

Gradu hau aukeratu nuen gehien erakartzen nindue-na zelako. Ez nengoen oso ziur gustatuko zitzaidan ala ez, baina orain konturatu naiz aukera egokia egin nuela.

**-Eta zergatik Mondragon Unibertsitatean?**

Mondragon Unibertsitatea aukeratu nuen bere ikasketako metodologia gustatu zitzaidalako; proiektuetan dago oinarrituta eta talde lanak ere garrantzi handia dauka.

**-Nolakoa izan da orain arte bizitako esperientzia?**

Orain arteko esperientzia oso ona izan da talde ona egin dugulako klasean eta elkarri asko laguntzen diogulako.

**-Zer metodologia erabiltzen duzue, nolakoa da?**

Aurretik esan bezala, ikasketako metodologia asko gustatu zait, gehien bat talde lana sustatzen duelako.

**-Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna?**

Batetik, esango nuke gehien gustatzen zaidana, zalantzak argitzeko orduan

irakasleekin daukagun hurbiltasuna dela.

**-Eta zerbait hobetzeko?**

Oraitxe bertan ez zait bururatzen hobetu behar denik ezer.

**-Etorkizunari begira zer asmo dituzu?**

Askok gustatuko litzaidake hurrengo mailan Erasmus-aregitea esperientzia berriak bizitzeko eta, gehien bat, ikasle berriak ezagutzeko. Gradua bukatu eta gero, ikasten jarraitzeko asmoa dut eta, ziurrenik, elektronikaren munduarekin lotutako ikasketekin jarraituko dut, Master bat eginez.



TXINTXARRI

## 1.500 euroek badute jabea

Javi Rodriguez Sanz izan da Ogi Berriko Gabonetako sariaren irabazlea; aipatu okindegiak urtero bezeroen artean zozkatzen dituen 1.500 euroak poltsikoratu ditu. Oso pozik agertu da, eta sariatz gozatzeko ilusioz. Kontatu du okindegiko langileak kafetxo batera gonbidatu dituela, eta, horiek, irabazlearekin eskertuta agertu dira.



# Ohiturari jarraiki, oles

Oles eta kanta egiteko eguna izaten da otsailaren laugarrena. Tradizioari eutsi eta zabaltzeko, goiz eta arratsalde aritu ziren koplak abesten zenbait herritar. Zabaletako bizilagunak izan ziren santa eskean irteten lehenak. 60 bat lagun batu ziren auzoan barrena ibilbidea egiteko. 11:00etan elkartu ziren Basotxo plazan eta bertan abestu ondoren, makilak eskuan, kalez kale zabaldu zuten ohitura zaharra. Gero, Oaintxe in deu! txarangako kideekin elkartu, eta sagardotegira joan ziren. Han, Imanol Jimenez auzokidea omendu eta giro politoan bazkaldu zuten.

Arratsaldean lekukoa hartu zieten Erketz Dantza Taldeak eta Xumela koruak. Lehenak, elkarteko egoitzatik abiatu ziren. Talde argazkia egin eta Santxo tabernan abestu zituzten lehen koplak eta handik Geltoki kalera joan ziren. Errepidean bertan abestu zuten berriro, Jalgi Kafe Antzokira gauza bera egitera sartu aurretik. Handik Kaxkarrora igo eta baserrietan kantatu zuten, Buenabista sagardotegian afaldu aurretik.

Jalgi tabernaren Sagardotegi kaleko atarian elkartuta zeuden orduantxe Xumelako kideak. Haiek ere talde argazkia egin zuten kantuan hasi aurretik. Txistulariak buru, Ama Brigitarren komentura joan ziren. Bertako bost moja izan zituzten entzule, eta unean asmatutako koplaren protagonista izan zen komentuan bizi denetako bat, euskaraz ikasi duen Glaciela mexikarra, nahiz eta bera ez zegoen harrera egin dietenen artean. Errepertorio osoa eskainita, txalo, irrintzi eta esker hitzen ondoren agurtu ziren koruko kideak.



Erketzeko lagunak erdigunean barrena ibili ziren, baserrietara igo aurretik. TXINTXARRI



Txistulariek jarri zuten Xumela koruko lagun ibilbidearen erritmoa. TXINTXARRI



Kuadrilla ederra ibili zen Zabaleta auzoan barrena santa eskean. TXINTXARRI



Oaintxe in deu! txarangak girotu zuten zabaletarren santa eskea. TXINTXARRI



Xumela koruak, herriko txistularien taldeak eta Erketz dantza taldeak bat egin zuten ibilbidean zehar. TXINTXARRI



Ama Brigitarren komentuko mojek ere oles egin zuten. TXINTXARRI





Ramon Ormazabal eta Koro Ortega, denda barruan. Dotore apaindu dute '100 urte zuekin' leloarekin. TXINTXARRI

# Fruitua jasotzea dagokie orain

Gerturatzen ari da Ormazabal loradendaren 100. urteurrenaren ospakizun egun nagusia, hilaren 17a. Jabeek, Ramon Ormazabalek eta Koro Ortegak, dena ongi doala diote, urduri samar daudela onartu arren. Ez da harritzekoa, mendeurrena ez baita egunero betetzen

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Gonbidatuak, aretoak, emanaldiak, antolaketa... Ormazabal loradendako jabe Ramon Ormazabal eta Koro Ortega "ezkontza baten atarian" egongo balira bezala sentitzen dira egun hauetan, gero eta gutxiago falta baita negozio horren mendeurrenaren ospakizun egun nagusirako, hilaren 17rako. Nerbioak dantzan izanagatik, prestaketa lanak "ongi" doazela esan dute eta "oso pozik" daudela bezero eta herritarrengandik jasotzen ari diren tratuagatik. Egunero-egunero mimoz eta goxotasunez ereiten dutenaren fruitua jasotzea dagokie orain.

Egun berezi hori herriko txistularien taldearen doinuekin hasiko da, 09:30ean, denda ataritik. Erdigunea zeharkatu eta gero Ama Brigitarren komenturantz joango dira 10:45 aldera,

ordu laurden geroago hasiko den mezaren tokira. Bertan, Pozaren Amari eskerrak emango dizkiote "mende honetan jasotako laguntzagatik". Elizkizuna amaitu ostean Antonio Mercero aretora joango dira, egitarauko ekitaldi nagusira: Zero Sette orkestrak eta Alboka Abesbatzak parte hartuko dute, loradendarekin harremana duten eragile eta erakundetako ordezkariak izango dira, senideak ere bai, Isaac Farre argazkilariak egindako dokumental bat proiektatuko dute, saltokiaren 100 urteko historia erreparatzen duena... Bestela esanda, gogotik ospatuko dute urtemuga berezi hori. Hori da larunbat horretako "programa ofiziala", nolabait esatearren, Ramonek usaintzen baitu sorpresaren bat edo beste jaso dezaketela. "Ez dakit zehazki aurreikusitakoa baino gauza

gehiago egingo dituzten ala ez, baina baterekin eta bestearekin hitz egiterakoan hori pentsatzera eraman nauten detailleto batzuekin geratu naiz".

## Etorkizunerako erronkak

Kazetaria beti kazetari, eta honakoa galdetu behar: zein da Ormazabal loradendaren etorkizuna? Ramonek eta Korok ez dute jubilatze asmorik, oraingoz behintzat: "Ez dugu aukera planteatu ere egin". Hori esanda, argi dute negozioak aurrera jarraitzea nahi dutela beraiek erretiratu eta gero ere. Sareko salmenten eta salgaien distribuzio kate handiek tokiko establezimenduei eragiten dizkieten kalteei erantzutea ez ezik, erronka "handiena" belaunaldiarteko erreleboa bermatzea dela nabarmendu du Ramonek, negozio txikietako dendariak ez ezik

eragile eta elkarteetako kideak ere kezkatzen dituen, "arazo orokorra" baita.

Horri guztiari aurre egiteko "ezinbestekoa" izango da "herritar, eragile eta erakundeek elkarlanean jarraitzea", Ramonen iritziz. Zentzu horretan, Ormazabal loradenda Lasarte-Oriaren bizitzaren parte aktiboa izan da eta izaten jarraitzen du, herrigintza bultzatzen, orotariko ekimen sozioekonomiko edota kulturaletan parte hartuta.

## Betidanik, "alpargaterikuak"

Etorkizunaz ez ezik, iraganaz ere hitz egin dute TXINTXA-RRI-rekin. Ramonek gogoratu du 16 urterekin hasi zela orduko horretan jangaien denda zenean, San Pedro Jaien ostean. "Argi nuen familiaren negozioarekin jarraitu nahi nuela".

Urte eta belaunaldietan atzerago eginda, gogoratu du betidanik izan direla "alpargaterikuak" ezizenez ezagunak, Pedro birraitonaren ogibideari erreferentzia eginda. "Alpargatak egiten zituen baina mertzeria, ehun denda eta taberna bat ere bazuen Lizarriturriena Txiki izeneko eraikinean. Horrez gain, gasolina hornigailu bat ere bazegoen".

Hari horretatik tiraka eta Jesus Mari Egizabalek *Lasarte-Oria* aldizkariaren 88. zenbakirako idatzitako *De Alpargategi-Berri a Ormazabal Loradenda...* artikulua erreferentziatzen hartuta, Ormazabaldarren negozioaren historiako zenbait mugarri eka-ri ditu TXINTXARRI-k artikulua honetara.

## 1896. URTEA

Javier Ormazabalen (Ramonen aitona) gurasoek Lizarriturriena Txiki eraikina erosi eta negozioari ekiten diote: alpargatak eta ehunak saltzen dituzte, bizarra moztu eta taberna nahiz gasolina hornigailu bana jarri.

## 1924. URTEA

Juana Mendizabal emaztearekin adosten du Javierrek Lizarriturriena Handi erosi eta bizartegia hara eramatea, beste taberna bat irekitzearekin batera. Hor hasiko da aurreko 100 urte beteko dituen lokalaren historia, Urnietako Udalaren (garai horretan Lasarte ez zen udalerririk independentea eta Kale Nagusiko nahiz Goikaleko zati hori

Urnietak kudeatzen zuen) irekitzeko baimena jaso zuenean.

## 1956. URTEA

Ordurako Javier eta Juanaren semeetako bat, Pedro, arduratzen zen familiaren negozioaz, Maria emaztearekin batera. Hiru seme izan zituzten: Pello, Jesus Mari eta Ramon, gaur egungo jabea. Urte horretan denda sakonki berritzea erabakitzen dute eta janaria saltzen hastea, burdin-degi bat jartzearekin batera.

## 1977. URTEA

Javier eta Juanaren semeetako bat, Ramon, familiaren denda lanean hasten da 16 urterekin. Gaztea izanagatik ideiak oso garbi ditu eta hau da bere asmoa: elikagaien saltoki eta burdin-degi dena loradenda eta oparitzeko artikuluen negozio bihurtzea.

## 1987. URTEA

Asmo hori hamar urte geroago gauzatuko du Ramonek, Koro Ortega emaztearekin batera. Komertzioaren izena aldatu zuen orduan, gaur egunera arte iraun duena: Ormazabal loradenda.

## 1997. URTEA

Lasarte-Oria gogor kolpatu zuen uholdeak eragindako kalteei aurre egin behar izan zien loradendak ere. Izerdi asko botata, baina negozioarekin jarraitu ahal izan zuten.

## 1999. URTEA

Familiaren negozioaren 75. urteurrena ospatu zuten maiatzaren 16an, giro ederrean. Erromeria, bertsolarien emanaldia eta erakusketa batzuk egin zituzten, lore lehorrena adibidez.



Negozioaren 75. urteurrena. T. VALLES

## 2010. URTEA

Eraikinak eta loradenda berritu zituzten orduko beharretara egokitzeak.



# Aurten ere, gaitzez salbu

## Euskal inauteriak herrian

Negu arraroa izaten ari bada ere, erdia egin du urtarok eta loraldia gero eta gertuago dago. Natura lozorrotik esnatzeko garaia gertu denez, aurretik uztak eta abereak zaindu beharra dago. Horretara etorri ziren Txantxo bihurriak Lasarte-Oriara hilaren 3an, ituna berrestera, eta herriak atek zabaldu zizkien urtero bezala.

Euskal Inauteriak bueltan ekarri zituen bere ohiko pertsonaiak. Hipodromo etorbideetik abiatuta, kalejira koloretsua eta alaia egin zuten xomorroek kaleetan barrena. Txantxoez gain, Kaxkamalo, Hartza eta Mamoxarroak ere etorri ziren eta haurrak korrika jarri zituzten. Horiek txikienak beldurtu, zirikatatu eta haiekin jolasean aritu ziren bitartean, zakua, lastozko kapela eta koloretako zintak soinen zituztenek dantzan egin zuten bidea. Ilargi eta Arkupe tabernen aurrean geldialdia egin zuten inguruan zeudenen arreta piztuz.

Bidea beraiekin egin zuten herritarrei beste asko batu zitzaizkien Okendo plazan. Akordioaren oinarri eta zergatien buruzko azalpenak entzun zituzten bozgorailutik, eta azken hilabeteetako kalamitate eta gaitzen erruduntzat jo zuten Kaxkamalo. Hortaz, bere patua argi gelditu zen: sugarretan erraustu zuten. Herria babestuta, dantza pare bat gehiago egin zituzten su aurrean.



Hipodromo etorbidean elkartu ondoren, Txantxoak erdigunean barrena ibili ziren kalejiran. Herritar ug



Herritar kuadrilla hau, Hipodromo etorbidean hasi zen kalejiran hartzeko prest. TXINTXARRI



Goiko irudian, Txantxoak dantzan; azpikoan, suziak pizten. TXINTXARRI



Hartza eta Txantxo batzuk, Hipodromo etorbidera iristen. TXINTXARRI





itar ugari bertaratu ziren ikuskizunaz gozatzeraz. TXINTXARRI



Kaxkamalok ez zuen hitzartutako ituna bete eta sutan erretzera kondenatua izan zen. TXINTXARRI

# OTSAILAK 16-25 USURBIL



**BIZKARSORO** Pelikula emanaldia eta solasaldia  
otsailak 16, **OSTIRALA**, 19:00 Sutegi



**ZTANDAP** Binakako bakarrizketa  
otsailak 18, **IGANDEA**, 18:00 Sutegi




**TAPIA ETA LETURIA** Kontzertua  
otsailak 17, **LARUNBATA**, 22:30 Aginagako Eliza Zaharrean

**TOTO** Antzerkia  
otsailak 24, **LARUNBATA**, 19:00 Sutegi



Usurbilgo Udala



**ETXE BAT** Poesia errezitaldi musikatua  
otsailak 25, **IGANDEA**, 18:00 Sutegi



www.noaua.eus



Sarrerak: aldeaz aurretik salgai usurbilkultura.eus plataforman eta NOAUA!ko egoitzan.



# Buruntzaldea IKTko igerilariak, lehiatzeko lehia

Buruntzaldea IKTko kideak maila ezberdinetako lehiaketetan izan dira borrokan. Garazi Etxeberriak zilarrezko domina jantzi du Euskal Herriko txapelketako 50 m. libre proban eta alebin mailan ere hainbat probetan lehen postuetan izan dira igeriketa taldeko gazteak

## Txintxarri

Buruntzaldea IKTko igerilariak Iruñean, Eskozian eta Azpeitian parte hartu dute maila ezberdinetako lehiaketetan. Ederki jardun dira guztiak; lehen postuetan izan dira eta Espainiako errekor bat ere hautsi du Nahia Zudairek.

Junior eta absolutu mailako Euskal Herriko Neguko Txapelketa jokatu da Iruñean. Erlojupeko sisteman jokatu zen lehiaketan, igeriketa taldeko kideek markak ondu zituzten eta Garazi Etxeberria junior mailako txapeldunorde izan zen 50 m. libre proban.

Etxeberriak bi proba burutu zituen Iruñean; 50 eta 100 m. librean. Proba luzea egin zuen lehenik eta ez zuen bere marka hobetzerik izan. Baina lehenean denbora luzez jaitsi nahi zuen 28 segundoetako langa igaro zuen. 27,75eko kronoa egin eta junior mailako bigarren sailkatu zuen.

Iker Gorostegui lau saio egin zituen -50 eta 100 m. tximeleta, 100 m. libre eta 200 m. lau estilo- eta guztietan bere onena eman markak pertsonal berria ezarri zuen.

Miren Sarobek ere bere markak berri zituen igeri egin zuen hiru probetan; 50 m., 100 m. eta 200 m. libre.

Itziar Garciak, aldiz, 100 m. bizkar proba lehiatu zuen. Infantila den arren, absolutu mailako gutxienekoak izan zituzten gazteak eta dagoeneko distantzia horretako infantil mailako Espainiako txapelketarako txartela eskuan duenez, proba motzeko gutxienekoak egitea zuen helburu lehiaketan.

Tamalez, proba jokatu baino lehen aukera hori ezinezkoa zela jakinarazi zieten igeriketa taldeko kideei. Beraz, Garciak ezin izan zion nahi moduan aurre egin lehiari eta emaitza izan zuen isla; ez zen esperotakoa izan.



Igeriketa taldeko Garazi Etxeberria dominarekin, Miren Sarobe eta Iker Gorostegui. TXINTXARRI

Hala ere, infantil mailako kideak aukerak ditu hurrengo asteetan beste proba batzuetan gutxienekoak eskuratzeko eta horretan dihardu lanean.

## Joko Paralinpikoak

Nazioarteko hitzordua izan zuen Nahia Zudaire taldekideak hilaren 1etik 3ra. Aberdeen, Eskoziara egin zuen bidaia oraingoan Zubietako igerilariak Britania Handiko Munderuko Serietan lehiatzeko.

200 m. libre, 100 m. bular eta 400 m. lau estiloetan parte hartu du igerilari gazteak eta hiruetan izan da A edo B finaletan. 100 m. bular proban, gainera, laugarren postuan sailkatu zen, Espainiako errekor berria ezarri, 01.35,68. Pariseko Joko Paralinpikoetako A gutxienekoak ere da marka hori.

Hilaren 10ean eta 11n, aukera berria izango du Zudairek bere markak berriak eskuratzeko, Bartzelonako Nazioarteko trofeoan. 50 m. bular zein estilo libreko 50 m., 200 m. eta 400 m. probetan egingo du igeri Buruntzaldea IKTko kideak.

## Alebinak ere fin

Azpeitian, aldiz, Alebin mailako Teknikazio Sarian lehiatu zen, hilaren 4an. Buruntzaldea IKTko bost igerilariak parte hartu zuten eta bina proba egin zituzten.

Burututako banakako probatan, igerilari gazteek euren markak

ontzea lortu zuten eta lehen postuetan ere izan ziren.

Aitor Ormazabalek 1.500 metro libreko proba luze eta sendoa igeri egin zuen eta 25.47,81 markarekin hirugarren izan zen. 100 m. lau estilo saioan ere parte hartu zuen Ormazabalek eta 01.35,70an geratu zuen kronoa.

Ander Martinezek 100 m. bular proba bosgarren amaitu eta bere marka pertsonala berri zuen, 01.36,40. Ormazabalen antzera 100 m. lau estilo proba ere egin zuen eta horretan hirugarren izan zen, 01.26,79 eginda.

Oier Jauregik lau estiloko proba luzea egin zuen, 200 metrokoa eta seigarren (03.08,23) sailkatu zen; bizkar estiloko 100 metrokoan, aldiz, bosgarren (01.23,56) izan zen.

Liher Albizuk ere proba berak egin zituen; 200 m. lau estiloko proba (03.19,36) eta 100 m. bizkar (01.29,95).

Itxaso Iparragirrek lau estiloetako bi saioak, bai motza 100 m. baita 200 m. ere, lehiatu zituen eta bietan bosgarren izan zen 01.26,27 eta 03.04,23 markak eginez.

Mutilek erreleboko bi probei ere egin zieten aurre. 4x100 m. librekoan 05.29,68rekin zortzigarren izan ziren eta 4x100 m. lau estilo proban seigarren (06.12,75).

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

#### OHOREZKO KADETE MAILA

Ostadar SKT - Antiguoko KE B  
Larunbata. 10:30. Michelin kirol gunean.

### ARETO FUTBOLA

#### III. MAILA

DAD Kutxa - Eguzki ISU Leihoak

Ostirala. 20:15. Urrietako kiroldegia.

### BOLEIBOLA

#### EUSKAL LIGA

Ostadar SKT - UDAPA Jatorkide Senior  
Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.

#### EUSKAL LIGA, II. MAILA

Galdakao BT - Ostadar SKT  
Igandea. 10:00. Urreta kirol., Galdakao, Bizkaian

### SASKIBALOIA

#### I. MAILA

Ostadar SKT - Az Casa de La Rioja

Ostirala. 20:30. Maialen Chourraut kirol.

#### III. MAILA

Ostadar SKT - Diego Valor Barbershop BKE

Larunbata. 14:00. Maialen Chourraut kirol.

### INF. ERRENDIMENDUA PROMOZIOA

Dikar Andraitz - Ostadar SKT  
Larunbata. 17:00. Bikuria kirol., Legazpian.

### PILOTA

#### TRINKETEA, 2. SENIORRA

Intza KE (Solano) - Hernani

Larunbata. 16:00 (1. partida). Ametsa trink., Iruñan.

#### ESKUZ BINAKA, 2. INFANTILA

Mundarro 2 - Intza KE 2  
Ostirala. 18:45 (2. partida). Udaleko pil., Astigaragan.  
Oiarpe 1 - Intza KE 1

Larunbata. 12:00 (2. partida). Madalensoro pil., Oiarzunen.

#### ESKUZ BINAKA, 3. INFANTILA

Soraluze 2 - Intza KE  
Ostirala. 19:15 (3. partida). Udaleko pil., Soraluzen.

### IGERIKETA

#### NAZIOARTEKO TROFEOA

Buruntzaldea IKTko Nahia Zudairek IX. Egokitutako igeriketako Nazioarteko trofeoa lehiatu du.

Larunbata eta igandea. Bartzelona, Katalunian.

### ATLETISMOA

#### EUSKADIKO TXAPELKETA

Herriko atletek 20, 18 eta 16 urtez azpiko Euskadiko txapelketan parte hartuko dute.

Larunbata. Antonio Elortza belodromo.

### ARRAUNA

#### ORRIAREN JAITSIERA

Herriko arraunlariak dituzten Hondarribia eta Arraun Lagunak traineruek 30. Oriaren jaitsiera lehiatu du.

Larunbata. 15:20. Orion.



### ERRUGBIA

#### EUROPAKO NAZIOEN KOPA

Alex Saleta herritarra Espainiako selekzioan deialdian sartu da. Alemania izango da aurkaria.

Igandea. 12:45. Univ. Complutense, Madriren.

#### 18 URTEZ AZPIKOA

Gernika Arratiko Urgozo - Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT

Igandea. 10:00. Urbieta kirol., Gernika, Bizkaian.

## Entrenamendu pertsonalen zerbitzu berriaren eskaintza

Hilaren 19tik aurrera, Lasarte-Oriako Maialen Chourraut Kiroldegian Entrenamendu Pertsonal zerbitzu berria jarriko da martxan.

Zerbitzu hau kontratatzen duten bezeroek, kirol monitorea batekin aurrez aurreko bakarkako saio pertsonalizatuak jasotzeko aukera izango dute, bakoitzaren helburu, ezaugarri eta interesei egokituak. Saioek 50 minutuko iraupena izango dute eta kiroldegiko instalazio desberdinak erabili ahaliko dira entrenamenduaren arabera.

Honako ordutegietan eskainiko da zerbitzua:

- Astelehena: 08:00, 10:00, 11:00 eta 16:15.

- Asteartea: 09:00, 12:00, 13:15 eta 17:20.

- Asteazkena: 08:00, 10:00, 11:00, 16:15 eta 18:00.

- Osteguna: 09:00, 12:00, 13:15 eta 17:20.

- Ostirala: 08:00, 10:00, 11:00 eta 20:15.

Zerbitzu hau kontratatzeko hiru aukera izango dira. Saio bakarrak 33,90 euro balioko du; bost saioko bonoak 152,70 euro eta hamar saiokoak 305,15 euro.

Bonoen erosketa zein saioen erreserbak kiroldegiko harreraren, 943-37 61 82 telefonoan edo Buruntzaldeko kirol zerbitzuen webgunearen bidez ([tramiteak.buruntzaldea.eus](http://tramiteak.buruntzaldea.eus)) egin beharko dira.



# Herriko atleten garaipen-zerrenda handitzen doa

Lasarte-Oriako atletak maila ezberdinetako Gipuzkoako zein Euskadiko txapelketan lehiatu dira. Adin txikiko zein master mailako hainbat probatan lehen postuetan izan dira herriko kirolariak eta kolore anitzeko dominak jantzi dituzte soinean

## Txintxarri

Aurreko astean herriko atletek absolutu mailako Gipuzkoako txapelketa jokatu bazuten, hilaren 3an adin txikikoen txanda izan zen eta Lasarte-Oriako ordezkariak podiumera igo ziren Donostiako Antonio Elortza belodromoan lehiatu ziren proba batean baino gehiagotan.

Ostadar SKTko 18 eta 16 urtez azpiko ordezkariak bederatzita domina eskuratu zituzten.

Oinatx Almagrok aurreko astean egin moduan, urrezko domina eta Gipuzkoako titulua eskuratu zuen 18 urtez azpiko jauzi hirukoitzeko proban; lehia handia egon zen eta bosgarren jausian egindako 12,83 metroko eman zion lehen postua. Hala ere, azkeneko saiakeran guztia eman eta 13,21 metrotara iritsi zen. Luzera jauzi proban ere lehen postuarengatik borrokatu zen talde urdin-beltzeko kidea; azkenean,



Podiumera igo ziren herritarretako batzuk. OSTADAR SKT/ATLETICO ERRENTERIA

bigarren izan zen eta lehen mailatik zentimetro batera geratu zen, 5,91 m.

Jauzi probekin jarraituz, June Garciak lehengo asteko brontzeari 18 urtez azpiko zilarrezko domina gehitu zion, 10,87 m.

Pisu jaurtiketa lehiaketetan lau domina gehiago jantzi zituzten Ostadar SKTko kideak. Bigarren postuan amaitu zuten lehiaketa

Aitor Eizaguirrek (11,12 m.) zein Aiala Ramosek (9,98 m.) 18 urtez azpiko mailan eta 16 urtez azpikoan Kevin Pinza izan zen. Nora Manzanal, aldiz, 18 urtez azpiko hirugarren mailara igo zen.

Abiadura probetako kideak bete zuten poltsa. 18 urtez azpiko mailako finalean Iraia Alkorta 60 metroak 7,93 segundotan egin zituen; helmugara bigarren iritsi zen. Jugatz

Almagrok, aldiz, 16 urtez azpikoan hirugarren postua egin zuen, 8,21. Almagroekin batera Eider Redondo taldekidea ere izan zen adin horretako finalean; gazteak zazpi-garren amaitu zuen lasterketa.

Baina ez dira garaikurra eskuratu duten herritar bakarrak izan. Atletico San Sebastian taldeko Hodei Murgiondo 16 urtez azpiko pertika proban jardun zen eta 13 urteko gazteak hirugarren maila eskuratu zuen.

Adin tarte berdinean, baina 60 metroko lasterketan Real Sociedad taldeko Ibai Alkain herritarra izan zen lehia.

Egun berean, Jaurtiketa luzeetako Euskadiko lehiaketa izan zen Durangon. Ostadar SKTko Oihana Igarritz, herriko ordezkari bakarra, disko-jaurtiketa proban jardun zen. Talde urdin-beltzeko kideak laugarren postua eskuratu zuen eta bere marka pertsonala ondu zuen 35,45 metroko saioarekin.

## Masterrek ere dominak

Distantzia luzeetako zein Master mailako atletak ere Euskadiko txapelketan batu ziren hilaren 4an, Donostiako belodromoan.

Atletico Renteria taldeko kide Jose Ramon Latorre eta Mari Carmen Olaso herritarrek parte hartu zuten. Latorrek master 45 mailako 60 m. (7,52) eta 200 m. (24,40) lasterketan urrezko domina eskuratu zuen; Olasok, aldiz,

## Herritarrek, probaz proba

Lasarte-Oriako korrikalariak Uliako Gimnastikan zein Negu Trail mendi lasterketan lehia izan ziren hilaren 4an.

Donostiako proban elite zein herriko mailako hamar kilometro lasterketan zein bost kilometrokoan izan ziren herriko ordezkariak parte hartzen. Lasterketa nagusian Ostadar SKTko Sergio Ramirez (34.16) izan zen lasarteoriatarik azkarrena; herrikoian, aldiz, Iñigo Valdivia (37.14) eta proba motzean, Julen Goenaga (16.32).

Berastegin ere izan zen herritarrik edo herriko taldeetako kiderik Negu Trail proban; horien artean, Iurgi Los Arcos (01.43.22) izan zen lehena 16 kilometrotako ibilbidea amaitzen.

800 metroko proban master 55 kategoriako lehena sailkatu (03.20,70) zen eta 3.000 metrokoan bigarren izan zen, 13.26,82.

Super Amara BAT taldeko Unax Goenagak, berriz, maila absolutuko 3.000 m. lasterketa egin zituen, 09.15,66.

## Manaslu eta Annapurna mendietako bizipenak gogoan

Alex Txikon Himalaiaren edertasunaz eta gogortasunaz mintzatu da LOTMEK antolatutako hitzaldian

## Txintxarri

Lasarte-Oria Trailek antolatuta, Alex Txikon alpinistak hitzaldia eman zuen hilaren 2an kultur etxean. Jakin-mina piztu zuen ekimenak eta hitzaldi aretoa ia bete zuten herritarrek. Manaslu eta Annapurnara egindako espedizioei buruz hitz egin zuen bizkaitarrak, zenbait argazki eta bideo laburrek lagunduta, eta epika albo batera utzita, zintzo mintzatu zen bizitakoaz.

Hiru zatitan banatu zuen Txikon bere azalpena, *Manaslu neguan* eta *Mendi biluzia* liburuak ardatz hartuta. Iazko urtarriaren 6an lortu zuen Manaslun gaina egitea eta aurtan Annapurnan saiatu da, baina bertan behera utzi behar



Alex Txikon hitzaldian. TXINTXARRI

izan du. Azken bidaia horretatik abiatuta, Manaslurekin jarraitu eta ondoren, galderen txanda egingo zutela aurreratu zuen, baina nahi baino gehiago luzatu zen lehen

bi ataletan. Horiek esanda, aulkitik altxa, eta zutik egin zuen bere aurkezpena, kontaketa laguntzeko argazkiak erakutsiz.

Himalaia neguan "magikoa" dela esan arren, duela hamalau urte Edurne Pasabanerekin batera joan zenean ikusitakoarekin alderatuta, aldaketa agerikoa da, Annapurnan udaberria zirudiela nabarmendu zuen. Oroitzapenak bizipenaren bereziena izan badira, ederrena, "bakardadea eta handitasuna" dira aitoritu zuen; gogorrena, berriz, 2. kanpamentutik gorakoa. "Neguan 8.000 metroko mendi bat igotzeko bikaina izan behar duzu, zeharo ona. Bikaintasun hori ez dugu izan aurtan. Zergatik? Duela hamahiru hilabete Manaslu igo genuelako. Arriskatu genuen guztia, pasatakoa, sufrutakoa... ez nuen hori dena berrirori bizi nahi", onartu zuen lemoarrak.

Ez igotzeak frustrazioa eragiten badie ere, presiorik eta arriskatzeko asmorik gabe joan ziren azke-

nekoan. Helburua lortu ez badute ere, "oso harro" dago egindakoaz eta garrantzitsuena "izugarri disfrutatu izana da. Tontorra gutxienezkoa da". Bidea politena dela gogoratu zuen eta espedizioen arrakasta emozioen kudeaketa dela, "odol eta buru hotza izan behar da". Horri Txikonnek egoskor izatea eta sufrutzeko gaitasuna gehitzen dizkio.

Edertasunaz gain, gogortasunaz ere mintzatu zen; halako mendi batean egotea nolako den filtrorik gabe deskribatuz eta ingurunearen

baldintzen arabera hartutako erabakiak azalduz. Haizean ondorioz lo egiteko ezintasuna, hotza, presioa, gorputzak jasandako aldaketak... Mendiak informazio asko ematen duela eta "intuizioz" jokatu behar dela ere ohartarazi zuen, teknologia "%2 ere" ez dela zehaztuta.

Gaur egun bizipenaren gainetik "argazkia" besterik nahi ez dutenak badira ere, bera inguruan zerbait uzten ahalegintzen da, ekarpenen bat egin eta komunitatea laguntzen. "Hori da benetako tontorra".

## LOTMEren hurrengo jarduerak

- **Hilak 24-25.** Panticosa-Bachimaña irteera.
- **Martxoak 1.** *Mendiko orientazioa* hitzaldia, Joxepo Artola. Mercero aretoa, 19:00etan. Galdu edo istripuren bat izanez gero, mendian nola orientatu irakatsiko du.
- **Apirilak 14.** Uharte Arakil-Berriain-Txurregi-Irurzun (22 Km, 1.600+).
- **Maiatzak 12.** Arrasate-Udalaitz-Besaide-Udala (14 Km, 1.300+).
- **Urriak 19-20.** Canfranc-Collarada-Villana (20 Km, 2.000+).



# LOKEko gimnastek ederki hasi dute lehia

Lasarte-Oriako gimnastek txapelketa garaiari hasiera eman diote eta Amateur mailako lehia lehen postuetan sailkatu dira. Jubenil B eta kadete mailan lortu dituzte emaitzarik onenak. Martxoko hitzorduan finalerako sailkapenak egongo dira jokoan

## Txintxarri


Pozarren itzuli dira Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) gimnastak Bergaratik. Amateur mailako lehen jardunaldia lehiatu zuten hilaren 3an eta banaka zein taldeko lehen postuetan izan ziren elkarteko kideak (ikus koadroa).

Taldeak izan dira emaitza hobereenak eskuratu dituztenak eta lehen saioan podiumeko postuetan jarri dira. Bakarka ere Aitana Molano jubenila eta Maitane Sarmiento kadeteak bigarren sailkatu dira.

Ongi hasi dute lehiaketa garaia eta horregatik arduradunek talde kide guztiek egindako lana eskertu nahi dute.

Martxoaren 17ko saioan ere lan ona egitea espero dute. Bigarren hitzordu horretako jardunak Gipuzkoako txapelketako finalean izango diren gimnasta eta taldeak zehaztuko ditu.

Hilaren 4an, berriz, Landaberri 1 eta 2 taldeak ederki moldatu ziren Oiartzunen izandako benjaminen topaketan.



Kadete C kategoriako taldea lehia. LOKE GIMNASTIKA

- **Master A**  
Paula Martinez - 6<sup>a</sup>
- **Senior A**  
Mirian Prieto - 5<sup>a</sup>
- **Jubenil A**  
Saioa Boyero - 4<sup>a</sup>
- **Jubenil B**  
Aitana Molano - 2<sup>a</sup>
- **LOKE** - 1<sup>a</sup>

- **Kadete A**  
Maitane Sarmiento - 2<sup>a</sup>
- **Kadete B**  
Arhane Larrañaga - 4<sup>a</sup>
- **LOKE** - 3<sup>a</sup>
- **Kadete C**  
LOKE1 - 1<sup>a</sup>
- **LOKE** 2 - 2<sup>a</sup>



LOKEko De La Cruz, Luis eta Guisado (ezkerretik eskuinera) Suhar Aristegirekin. LOKE JUDO

## Zilarrezko domina, junior mailako Euskadiko txapelketan

LOKEko judoka gazteek Euskadiko lehiari egin diote aurre; Ekain Luisek eskuratu du domina bakarra

### Txintxarri

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) Judo ataleko kideek bi txapelketa izan dituzte hilaren 3an eta 4an.

Junior mailako hiru judokak Portugaletara egin zuten bidaia Euskadiko txapelketan parte hartzeko eta zilarrezko domina jantzi zuen Ekain Luisek.

LOKEko kirolariak maila ezberdinetan egin zuten borroka: Ekain Luisek 100 kilo baino gehiagoko kategorian; Ekhi De La Cruz 73 kilo baino gutxiagokoan eta Unai Guisado 66 kilo baino gutxiagokoan.

Zegozkien borroka lehiatu ostean, Luis bigarren postuan sailkatu zen eta Guisado bosgarren izan zen.

### Infantilak ere lehia

Infantil mailako gazteak ere izan ziren tatamian lehiatzen. Hilaren 3an, Urnietako kiroldegian Gipuzkoako txapelketako lehen saioari ederki egin zioten aurre gaztetxoek.

Bigarren jardunaldia hilaren 17an jokatu dute LOKEko judokak leku berean eta bertan jakingo dira eremuko txapelduinak zeintzuk diren.

## Tolosa gaituz, hiru puntuak Texas Lasartearren poltsikora

Infantil mailako Txapeldunen faseko lehia neurtu dituzte indarrak Texas Lasartearrak eta Tolosak

### Txintxarri

Texas Lasartearra taldeko infantil taldea Txapeldunen fasea lehiatzen ari da. Zazpi jardunaldi jokatu dituzte eta azkenekoan, hilaren 3an, Tolosa irabazi zuten.

Neurketa hasi baino lehen tolosarrak txapelketako laugarren postuan ziren; talde zurri-urdina, aldiz, taulako azkenetarikoa zen. Lasarteoriarrek neurketa gogorra espero zuten, beraz, Michelin kirol gunean.

Astean zehar landutakoa martxan jarri zuten Texaseko gazteek eta bi taldeen arteko borroka



Jokalariak, borrokan. TXINTXARRI

handia izan zen. Bi taldeek aukerak sortu zituzten, baina etxe-koak gailendu ziren gol bakarra lortuz.

Puntuei esker, zazpigarren postura igo da Lasarte-Oriako taldea.

### Guztiek puntuak

Texas Lasartearrako gainerako taldeek ere aldeko emaitzak izan zituzten.

Erregional I. Mailako taldea maila igoeraren bila dabil eta beste pauso bat eman zuen Zaurutz 1-0 garaituz.

Kadete I. Mailako kideek ere hiru puntuak eskuratu zituzten Gipuzkoako kopan. Lazkao B izan zuten aurrez aurre eta zurri-urdinek 1-4 irabazi zuten.

Jubenil Mailako taldeak, aldiz, launa berdindu zuen Urnieta Bren aurka.

## Kirola eta ongizate emozionala gai

Ostadar SKTko gurasoak *Gurasotasun positiboa eta ongizate emozionala kirolean* izeneko formakuntza jaso dute azken hiru asteetan Antonio Mercero gunean.

Alex Remiro Realeko atezainak eta Futbol Mas Fundazioak sortutako proiektua da eta helburua futboleko prestakuntza garaian kirolari eta euren senideen ongizate emozionala lantzen laguntzea da.



OSTADAR SKT

### Neurketa bakarra

Inauteriak direla eta, ohorezko kadete mailan izan ezik, ez da ligako jardunalditik jokatu hilen 10ean eta 11n.

Ostadar SKTko Ohorezko kadete taldeak Antiguoko B izango du aurrez aurre larunbat goizean Michelin kirol guneko zelaian.



# Kadete partaidetza taldeak, garaipen landua

Ostadar SKTko taldeak bigarren faseko jardunaldia jokatu du errendimendu zilar mailatik jaitsi den Goierri Oxykorren aurka. Lehen laurdenean puntu batengatik galtzen joan arren, itzulia eman dio neurketari Aitor Lasek zuzentzen duen ekipoak

## Txintxarri

Kadete partaidetza mailan denboraldiko bigarren fasea jokatzen ari dira. Liga erregularrean lehen hiruren artean geratu zenez, A-1 multzoan ari da lehiatzen Aitor Lasen taldea eta ondorioz, besteak beste, errendimendu zilar mailatik jaitsitako bi talde izango ditu aurrez aurre hurrengo asteetan. Horietako batekin neurtu zituen indarrak hilaren 3an Maialen Chourraut kiroldegian, Goierri Oxykor eta garaile atera zen.

Jokalari gazteez betetako taldea aurkeztu zuen aurkariak; ekipoaren erdia infantil adinekoa zen. Hala ere, urduri atera zen kantxara etxeko taldea eta Urretxuko banakako erasoak gelditzerakoan arazoak izan zituen. Kontraeraso eta erasoetako erreboteari esker, urdin-beltzak lehiari mantentzea lortu zuten eta puntu batera amaitu zituzten lehen 10 minutuak, 11-12.

Bigarren laurdenean, bosteko berria atera zuen Aitor Lasek eta kanpoko eraso eustea lortu zuen Ostadarrek. Gainera, kontraeraso eta eraso estatiko azkarrekin markagailuan aurre hartzea lortu zuen etxeko taldeak. Urretxuarrak zona defentsa ezarri eta etxeko eraso geratzen saiatu ziren. Hasieran lortu



Baloia saskira botatzeko lehian. TXINTXARRI

arren, lasarteoriatarrek oztopoa gainditu eta partziala 12-8 irabazi zuten.

Puntu gutxi batzuk zeuden bi taldeen artean eta Ostadar SKTko jokalariek hori aldatzeko saiakera egin zuten bigarren zatia hasi bezain pronto. Bi hiruko eta barne jokoa eginez aldea ireki zuen etxeko taldeak; lehen bi laurdenetan sartutako puntuak berdindu zituen. Joko intentsitatea handitu, baloia igotzean defentsa hobetu eta errebotean nagusi izan zen Lasen taldea. Ondorioz Goierri Oxykorrek estuasunak izan zituen erasoan eta 22-11 izan zen partziala.

Azken laurdenak hirugarrenaren erritmo bera jarraitu zuen eta etxeko taldea nagusi izan zen. Urretxuarrak nekez baliatuz errenta handitu zuten urdin-beltzek. Egoera ikusirik Lasek jokalarri guztiei minutuak jokatzeke aukera eman zien eta taldekideen jarreraz kutsaturik, aulkian zeuden ere maila mantendu zuten neurketa amaitu arte. Era horretara, 66-41 amaitu zen neurketa eta Ostadarrek garaipena erdietsi zuen.

## Taldearen garapena

Aitor Las entrenatzailearen hitzetan, "lehenengo laurdeneko urduritasuna alde batera utzi behar da. Taldeak potentzial handia du, bai kontraerasoan baita eraso estatikoetan ere".

Hala ere, multzoko lehen postuetan mantendu nahi baldin badute, banakako zein zona defentsa landu beharko dutela aipatu du.

Eta denboraldian zehar taldearen garapena garrantzitsua izan dela ere nabarmendu du: "Esperientzi gutxiago duten jokalarriak pixkanaka integratuz doaz, bigarren fase honi aurre egiteko eskertzekoa da. Eta batek daki, errendimenduko kategoriara igotzeko erronkan ere sar gaitzake".

Zarautzeko taldea zuzentzen, berriz, Jon Anderren aita Fran Puertas egon zen.

Jon Ander Malagako taldearen hasierako hamabostekoan izan zen eta ederki borrokatu zen zarautzarren aurka. Adrian Apaolaza herritarra, aldiz, 65. minutuan sartu zen zelaira.

Lehen zatian bi taldeak txandaka zigor kolpeak, entseguak eta gauzatzeak lortu zituzten. Ondorioz, atsedenaldira iristean 13nako berdinketa zegoen markagailuan.



Eguzki Arkupe Rehabilitaciones taldeko kidea pasea egin baino lehen. TXINTXARRI

## Eguzkiko lehen taldeak aurkako emaitzari itzulia eman dio

Laskorainen aurka neurtu ditu indarrak Lasarte-Oriako ekipoak; 4-2ko emaitzarekin amaitu da norgehiagoka

## Txintxarri

Eguzki Arkupe Rehabilitaciones taldeak ligako azken sailkatua den Laskorainen aurka neurtu zituen indarrak hilaren 3an, Maialen Chourraut kiroldegian. Josu Lopezek zuzentzen duen taldeak borrokatuz neurketari itzulia eman zion eta garaipena eskuratu zuten.

Bi taldeak gogotsu atera ziren kantxara eta baloiaren jabetzaren inguruko borroka handia izan zen. Baina tolosarrek hutsuneak aurkitu eta 0-2 aurreratu ziren.

Etxekoek ez zuten amore eman go eta defentsa lana hobetuz, falta eta kontra bati esker berdinketa eskuratu zuten.

Horri esker, Eguzkik partida bereganatu zuen eta nahiz eta aurkaria atera gerturatu, erasoak zapuztea lortzen duen Josu Lopezek taldeak. Ondorioz, hirugarren gola eta azken minutuetan laugarrena egin zituen etxeko taldeak.

Garaipeneko puntuei esker, Eguzkiko lehen taldeak gora

egin du sailkapenean eta egun seigarren postuan da.

## Gainerako taldeak

Goizean, kadete mailako taldeak Erain izan zuen aurkari. Partida borrokatuan launa berdindu zuen Eguzki Goxok Goxua taldeak.

Egun bat lehenago, III. mailako Eguzki ISU Leihoak- Sanpedrotarrak jokatu zen kiroldegiko kantxan.

Kanpoan lehiatu ziren bai jubenil, baita infantil taldeak ere. Anoetan izan ziren lehenak eta Eguzki Bodegas Ayesa 1-4 gailendu zen. Arrasatera egin zuten bidaiari taldeko gaztetxoek eta nagusitasunez Mondrate garaitu zuten, 0-10.

## III. mailan lehia

Hilaren 9-11 asteburuan areto futboleko maila gehienek atsedena izango duten arren, III. mailako taldeak jardunaldia izango du. DAD Kutxa taldea izango du aurrez aurre Eguzki ISU Leihoak taldeak, gaur, hilaren 9an, Urnietan.

## Herritarren arteko lehia izan da errugbiko Ohorezko B mailan

Apaolaza eta Jon Ander Puertas jokalarriak buruz buru lehiatu dira zelain; Fran Puertas, aldiz, aulkian izan da

## Txintxarri

Herritarren arteko lehia izan zen errugbiko Ohorezko B mailan, hilaren 4an, Malagako Hiria estadioan.

Gesalaga Okelan Zarautzek Rugby Malaga taldearen aurka

jokatu zuen elite mailako jardunaldia eta zelain zein aulkian lasarteoriatarrak izan ziren. Zarautzeko taldekide Adrian Apaolaza eta Malagako kide Jon Ander Puertas herritarrek aurrez aurre izan ziren bigarren zatian;

Bigarren zatiko lehen minutuetan zigor kolpe eta entsegu bati esker, Zarautzek 13-21 hartu zuen aurre markagailuan. Etxekoek ez zuten amore eman go, ordea; neurketari itzulia eman arte borrokatu ziren. Baita lortu ere, 26-21 amaitu zen norgehiagoka.

## Europako Nazioen Kopa

Espainiako selekzioak, aldiz, Europako Nazioen Kopako hitzordua jokatuko du, hilaren 11n, Madrilan Alemaniaren aurka.

Deialdian Ordizia taldean lehiari ari den Alex Saleta herritarra sartu da eta egun hauean, neurketa jokatu ahal izateko lanean ari da.


## Gazteek, neurketa

Gesalaga Zarautz Errugbi taldeko harrobiak partida bakarra jokatuko du hilaren 10-11 asteburuan.


18 urtez azpiko taldeak Gernikara egingo du bidaiari eta Gernika Arratiko Urgozo taldearen aurka neurtuko ditu indarrak.



## ZORION AGURRAK



**Nora**  
Zorionak Nora!!!! Oso ondo pasa zure urtebetze egunean. 15 muxu handi!! Askok maite zaitugu!!



**Oihana**  
Zorionak bitxito zure 8. urtebetzearekin. Oso ondo pasatu zure egunean; familiaren partez. Askok maite zaitugu!!!!



**Joanes**  
Zorionak potxolontzi!! Zure eguna ikaragarri gozatu, 3 urtebeto! zure irrifar polit hori, bidelagun mantendu urte berri honetan ere. Pila maite zaitugu!!

## Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri, jaioberri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitarakoak

## Internet

- txintxarri.eus/zorionagurra.
- Erabiltzaileekin sartu/ Erabiltzaileak ez baduzu izena eman.
- Zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperarean.

## Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK ARTE JASOKO DITUGU

## GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 9	DE MIGUEL
LARUNBATA, 10	DE ORUE
IGANDEA, 11	DE ORUE
ASTELEHENA, 12	LASA
ASTEARTEA, 13	GIL
ASTEAZKENA, 14	ACHA-ORBEA
OSTEGUNA, 15	URBISTONDO

## Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

## GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

K. Aizpuru Odriozola: Latxumbe Berri 11, Hernani. 943-33 60 77

## 'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) webgunean eskuragarri.

## EGURALDIA LASARTE-ORIAN

Ostirala, 9



Larunbata, 10




Igandea, 11



Astelehena, 12




Asteartea, 13



Asteazkena, 14



Osteguna, 15



**Jaio da!**

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali hauraren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

## AZOKA TXIKIA

## ETXEBIZITZA

## SALDU

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

## GARAJEA

## ALOKATU

Erdigunean garaje marra bat alokatzen dut abendutik aurrera. Arratsalde deitu hona: 650 63 65 88.

## LANA

## ESKAINITZA

Lasarte-Orian interna modura lan egiteko emakumea behar dut. Baldintza onak eskaintzen dira. Informa beharrezkoak. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

## ESKARIA

Emakume euskalduna etxeko lanak edo pertsona edadetei laguntzen lan egiteko prest. Esperientzia dut. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Haurrak zaintzeko lan bila nabil. Umeekin esperientzia daukat. Harremanetarako telefonoa: 695 18 41 79.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erieteetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erieteetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68.

Gaztea 24 urte, edozein lan egiteko eskaintzen naiz (zerbitzari, garbiketara...) FP-2 mekanizatu egina dut. Zubietan bizi naiz. 602 08 25 83.

Etxeko lanak egiteko edo pertsonak lagundu eta zaintzeko eskaintzen naiz. Orduka. Zubietan bizi naiz. Euskaraz ez dakit. 44 urte eta eskarmentua dut. 602 08 25 83.

## BESTELAKOAK

## SALEROSKETA

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu osten etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

## AZOKA TXIKIA

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

**Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaituz gurekin harremanetan**

txintxarri@ttakun.eus  
943-37 14 48  
688 68 35 10

## TELEFONOAK

## UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

## LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINZAK: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

**Argitaratzailea**  
Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 Lasarte-Oria  
G-20407557

**Administraria**  
Nerea Garziarena.

**Erredakzioa**  
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

**Publizitatea**  
Irati Zatarain.

## Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

## Banatzaileak:

Nikola Iraola, Xuban Urdalletea, Egoitz Epelde, Endika Merchan, Gorka Morales, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Nora Navarro.

**Informatika zerbitzuak**  
IZT Informatika.

**Publizitatea**  
Tel.: 943-37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

**Egoitza nagusia**  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943-37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus)

**Inprimategia**  
Zeroa Multimedia, S.A.  
Lege Gordailua: SS-513/93  
ISSN: 1134-0053  
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia



# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.  
Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

## 9TIK 12RA

**LASARTE-ORIA Inauteriak**  
Lasarte-Oriako Udalak, herriko zenbait eragilerekin elkarlanean, Inauteri asteburua iragarri du; adin eta gustu guztientzako jarduerak iragarri ditu. Aldizkari honetako 2. orrian kontsulta dezakezu egutara, osorik.  
*Herriko zenbait lekutan.*

## LARUNBATA 10

**LASARTE-ORIA Kontzertua**  
Drogopropulsados musika taldeak emanaldia eskainiko du Avenida tabernan.  
*Avenida taberna, 19:30ean.*

## ASTELEHENA 12

**LASARTE-ORIA Aurkezpena**  
CIMASUB XVI. Itsaspeko Zinema Zikloaren aurkezpena eta aldi honetarako hautatutako ikusentzunezkoen lehen proiektzioa. Jarduera hori Danok Kide Guraso Elkartearekin elkarlanean aurrera eramango dute.  
*Kultur etxeko auditorioa, 19:00etan.*

## 12TIK 29RA

**LASARTE-ORIA Erakusketa**  
CIMASUB XVI. Itsaspeko Zinema Zikloaren barruan erakusketa bisitatzeko aukera izango dute herritarrek.  
*Kultur etxeko kafetegia, 17:00etatik 21:00etara.*



**LASARTE-ORIA Emanaldia**  
Royal Ballet konpainiaren *Don Quixote* ikuskizunaren emanaldi digitala egingo dute Danok Kide elkarteak eta udalak. Bertaratzeko sarrerak erostea ezinbestekoa da; 7,5 eta 9 euro artean balio dute horiek.  
*Hilak 14, asteazkena, kultur etxeko auditorioa, 19:00etan.*

## ASTEAZKENA 14

**LASARTE-ORIA Emanaldia**  
Royal Ballet konpainiaren *Don Quixote* ikuskizunaren emanaldi digitala egingo dute Danok Kide elkarteak eta udalak. Bertaratzeko sarrerak erostea ezinbestekoa da; 7,5 eta 9 euro artean balio dute horiek.  
*Kultur etxeko auditorioa, 19:00etan.*

## OSTEGUNA 15

**LASARTE-ORIA Hitzaldi tailerra**  
Borobilean elkarteak antolatuta, Hiruki Larroxa kooperatibak *Gizonak*

*parekidetasunaren bidean: aukerak eta korapiloak* hitzaldi-tailerra aurrera eramango du.  
*Oriarte BHI, 19:00etan.*

## OSTIRALA 16

**LASARTE-ORIA Zinema**  
Okendo Zinema Taldeak hilabeteko bigarren bideoforumara aurrera eramango du: *Robot Dreams* filma proiektatuko dute. Bertaratzeko sarrerak erostea ezinbestekoa da; 6 euro balio dute horiek.  
*Kultur etxeko auditorioa, 19:00etan.*

## IGANDEA 17

**LASARTE-ORIA Antzerkia**  
Lasarte-Oriako familiek antzerki gozatzeko aukera izango dute;  
*Mr Boo* obra oholtzaratuko du Marie de Jongh antzerki konpainiak. Bertaratzeko sarrerak erostea ezinbestekoa da; 4 euro balio dute horiek.  
*Kultur etxeko auditorioa, 19:00etan.*

## IGANDEA 18

**LASARTE-ORIA Zinema**  
Haurrentzako zinema proiektzioa iragarri du udalak; *El fantasma de Canterville* proiektatuko dute. Bertaratzeko sarrerak erostea ezinbestekoa da; 4 euro balio dute horiek.  
*Kultur etxeko auditorioa, 17:00etan.*

**LASARTE-ORIA Zinema**  
Helduentzako zinema proiektzioa iragarri du udalak; *Los que se quedan* proiektatuko dute. Bertaratzeko sarrerak erostea ezinbestekoa da; 6 euro balio dute horiek.  
*Kultur etxeko auditorioa, 19:30ean.*

## ASTELEHENA 19

**LASARTE-ORIA Proiektzioa**  
CIMASUB XVI. Itsaspeko Zinema Zikloaren aldi honetarako hautatutako ikusentzunezkoen bigarren proiektzioa. Jarduera hori Danok Kide Guraso Elkartearekin elkarlanean aurrera eramango dute.  
*Kultur etxeko auditorioa, 19:00etan.*

## LARUNBATA 24

**LASARTE-ORIA Antzerkia**  
Helduentzako antzerkia iragarri du udalak; *Lagun Beltz* asko obra erakutsiko du Ados Teatroa antzerki konpainiak. Bertaratzeko sarrerak erostea ezinbestekoa da; 6 euro balio dute horiek.  
*Kultur etxeko auditorioa, 20:00etan.*

## IGANDEA 25

**LASARTE-ORIA Zinema**  
Haurrentzako zinema proiektzioa iragarri du udalak; *Thabo y el caso del rinoceronte* proiektatuko dute. Bertaratzeko sarrerak erostea ezinbestekoa da; 4 euro balio dute horiek.  
*Kultur etxeko auditorioa, 17:00etan.*

**LASARTE-ORIA Zinema**  
Helduentzako zinema proiektzioa iragarri du udalak; *La zona de interes* proiektatuko dute. Bertaratzeko sarrerak erostea ezinbestekoa da; 6 euro balio dute horiek.  
*Kultur etxeko auditorioa, 19:30ean.*

## ASTELEHENA 26

**LASARTE-ORIA Proiektzioa**  
CIMASUB XVI. Itsaspeko Zinema Zikloaren aldi honetarako hautatutako ikusentzunezkoen hirugarren eta azken proiektzioa. Jarduera hori Danok Kide Guraso Elkartearekin elkarlanean aurrera eramango dute.  
*Kultur etxeko auditorioa, 19:00etan.*

Bidali argazkiak:  
[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus) / [txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus)  
646 82 44 66 Whatsapp zenbakira

otsailaren 25era arte

**EPAIMAHAIAREN GUSTOKOENA**  
Avenida taberna/jatetxean bi menu

**IRAKURLEEN BOZKATUENA**  
Avenida tabernako patata tortilla eder bat



# ORIANTE BHI

BI ERAIKIN, INSTITUTU BAT!

DBH-ko IKASLEEN ONARPENA 24-25

OTSAILAREN 7tik 23ra



**Landaberri eraikina DBH 1-2**  
Pintore 2,  
20160 Lasarte-Oria  
943-89 94 94



**Larrekoetxe eraikina DBH 3-4 eta Batxilergoa**  
Buenos Aires aldapa 1,  
20160 Lasarte-Oria  
943-89 94 92



ura

URAREN  
EUSKAL  
AGENTZIA

AGENCIA  
VASCA  
DEL AGUA

EUSKADIKO  
ITUN  
BERDEA

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Betidanik, beste inork baino gehiago irabazi diogu urari.  
Baina inoiz ez dugu izan dena galtzeko orain dugun arriskua.

**EZ DAGO  
URA BAINO  
INDARTSUAGORIK**

**Elena Arzak, Chef.**  
3 Michelin Izar, 2012ko Munduko  
Emakume Chef Onena.

[www.indartsuagoak.eus](http://www.indartsuagoak.eus)